## 1. TESTUA (10 puntu)

Proposatutako testua **garatu** behar duzu. Idazlanak **160** hitz kopurua izan behar du eta **aberastasuna, diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna eta zuzentasuna** hartuko dira kontuan.

| | |
|---|---|
| **Egitekoa** | Idatzi eskutitz bat atzerrian dagoen lagun bati. |
| **Egoera** | Atzerrian duzun lagun bat hemen hiru hilabete pasatzeko bueltatuko da. Etxea badu hemen, eta ez du lan egin behar hiru hilabete horietan. Lagun honek ez daki noiz etorri: udan ala neguan.<br><br>Hau erabakitzeko laguntza behar duenez, idatzi lagunari eta emaiozu zure iritzia, alde onak eta txarrak aipatuz. |

Eskema hemen egin dezakezu

**2. TESTUA (10 puntu)**

Proposatutako testua **garatu** behar duzu. Idazlanak **180 – 230 bitarteko** hitz kopurua izan behar du eta **aberastasuna, diskurtsoaren antolaketa, egokitasuna eta zuzentasuna** hartuko dira kontuan.

| **Gaia** | Beharrezkoa da, aisialdiaren bitartez, eguneroko ohituretatik irtetea. |
|---|---|
| | Idatzi egunkari edo aldizkari batean argitatzeko moduko artikulu bat, gai honen inguruan duzun iritzia edo ikuspuntua argi utzi nahi duzulako. |

Aurreko batean, egunkaria irakurtzen ari zinela, informazio honekin egin zenuen topo:

"Beharrezkoa zaigu aisialdiaren bitartez eguneroko ohituretatik irtetea, gizakiaren oreka mantentzeko. Horrela, gure denbora-tarte libre gehiena telebista aurrean -aisia pasiboa- ematen dugu eta honek gure parte hartzeko gaitasuna murrizten du.
Hala eta guztiz ere, gero eta gehiago dira aisia aktiboa praktikatzen duten pertsonak."

Eskema hemen egin dezakezu